



SALLABENTEKARIA

2010EKO AZAROA.

21. ZENBAKIA

IKASLE BERRIAK GURE IKASTETXEAN



Hona hemen 2 urteko gelako ikasle berriak.
Andereñoak oso jatorrak direla esaten du, eta lehenengo egunetan muki eta negar batzuk egin badituzte ere, honezkero pozik eta alai etortzen dira. Jolasteko eta lan egiteko energia amaigabea ere erakutsi dute.
Popeyeren espinakak gosalduko ote dute egunero?

BERRIAK

SAN LORENZO ESKOLA PERRETXIKO ERAKUSKETAN



Beste urte batez, gure eskolak Ermuko Jardunaldi mikologikoetan parte hartu du. Antolatzaileen esanetan, ikasleek lan ederra egin dute eta bereziki zoriondu gaituzte

6. MAILAKOEN EGUNKARIA



Gure ikastetxean bertan izango dugu "Sallabentekaria" aldizkariaren konpetentzia. Eta gainera hobea izango dela diote 6 mailakoek. Egunkariaren proiektuarekin hasi dira, eta eskolako berriak izateaz gain, munduko albisteak ere izango ditu, eta bitxi-



keriak, eta elkarrizketak, eta iragarkiak eta... Lan piloa egiten dabilta behinik behin. Irrikitan gaude egunkari berria ikusteko.

Proiektu honen borsean, ikasleak Zamudiora joan ziren "El Correo" egunkaria nola eta non egiten den ikustera.

Gainera "El Correo"z gain beste egunkari batzu bertan egiten direla azaldu ziguten, adibidez: El Mundo, Marca (hemengo edizioak) eta beste batzu.

Instalazioak ikusi eta gero argazki bat atera eta eta urriaren 30ean egunkarian argitaratu zuten.

HAUR HEZKUNTZA



Udazkena denez, gelan Txorimalo polit-politak egin ditugu . Ikusi, ikusi!

Gainera Oñatiko Natur Eskolara joan ginen 4 eta 5 urteko lagunak. Menditik ibilaldi bat egin genuen eta baserriko abereak ikusi ondoren, ogia egiten ikasi genuen.

Oso erraza da!



**UDAZKEN, KEN, KEN,
TXORIMALOA JAZTEN!**



1. ZIKLOA

TXAPULINAK

Mexikoko azoka ugaritan, txapulinak saltzen dituzte. Izen horixe ematen diete matxinsalto txiki batzuei. Jateko, lehenik eta behin irakiten jartzen dira, eta gero xigortu egiten dira. Gozo-gozoak dira, eta oso elikagarriak.



Irailairen 24an, Kortezubin dagoen **Basondo** interpretazio zentzora joan ginen. Bertan bizi diren animaliak ezagutu genituen: Katamotzak, otsoak, oreinak, saiak, bisonteak, sugeak eta abar. Monitoreak haien ohiturak eta zer jaten duten azaldu zigun. Bazkaldu ondoren, euria ari zuenez, frontoi batera jolastera joan ginen. Eguraldiak ez zigun lagundu, baina egun polita pasatu genuen.

basondo



2. ZIKLOA



3. mailakoek joan den hilabetea deskribapena landu dugu eta 4. mailakoek errezetak egin ditugu. Hemen dituzue klasean egindako lan batzuk.

OSAGAIAK

- Litro erdi nata
- Philadelphia gazta 600g.
- 100g. azukre
- Yogurt natural bat
- Gelatina
- Marmelada (gustoko duzuna)
- “Sobao”ak (pakete bat)

NOLA PRESTATU

- Ontzi batean hahastu azukrea eta nata
- Bota gazta eta jogurta nahasketari eta nahastu guztia
- Gelatina orriak ur beroa duen edalontzi batean ipini, Hozten utzi eta nahastu beste guztiarekin
- “Sobao”ekin oinarria prestatu ontzi batean
- Nahasketa bota gainean eta hozkailuan sartu.

GAZTA TARTA



Paula

Paula nire lagun mina da. Ni joaten banaiz Ainhoa eta Wafarekin, Paula nire atzetik doa eta oso dibertigarria da Paularekin jolastea. Batzuetan eskola amaitzen denean, ni hitzegiten nago, eta Paula nire atzean, eta gero, amaitzen duenean, kili kili egiten dit eta txiste asko kontatzen dit. Igeritokira joatea gustatzen zaio eta ordenagailuarekin jolastea ere.



Nire laguna Claudio mutil haundia da. Ile horixka, begi marroiak eta sudur txikia dauka.

Claudiok denekin jolasten du eta asko hitz egiten du.

Claudiok jantokian jaten du eta bere lagun onena Jon da.

Claudio

3. ZIKLOA

ANÁLISIS DE LA COSTA



Los Alumn@s de 5º hemos ido a Deba, y dentro del proyecto "Azterkosta" hemos estudiado el ecosistema de nuestra costa. Realizamos un análisis de la flora y la fauna. También observamos el estado del agua: Cantidad de oxígeno, turbiedad, ph... Apuntamos todos los datos, y por grupos hicimos un informe. Fue muy interesante!



ZAINDU
INGURUGI-
ROA !!!

Azaroaren 13an, 3. ziklokoak Kutxa Espaziora joan ginen. Gauza asko ikasi genuen, haien artean, animalia batzuk nola ikusten duten, tornadoak nola osatzen diren, fakirren ohe batean egon ginen etzanda, minik gabe... Hori amaitu ondoren, planetariora joan ginen, eta bidai zoragarri bat egin genuen: galaxiak, planetak eta ilar-gia ikusi genituen aulkitik mugitu barik.

5º-6º MAILA KUTXA ESPAZION



TXISTEAK



- Nire generala, indioak etortzen ari dira.
- Zer dira lagunak edo etsaiak?
- Lagunak izan behar dira, denak elkarturik datoz eta.

Alex Tola

Egun baten andereñoak esan zion Jaimitoari:


- Esnatu zure laguna .
- Orduan Jaimitok erantzun zion:
- Ez, zuk lokartu duzu zure klasearekin , ba orain zuk esnatu.

Kule Coulibay

Behin, mutil bati loteria tokatu zitzaion. Mutilak ez zekien loteria tokatu zitzaiola, bakarrik bere familiakoek zekiten eta ez zioten mutilari kontatu nahi infarto bat emango ziola beldurra zeukatelako. Sikologo batera eraman zuten eta honek galdetu zion:

- Loteria tokatzen bazaizu, zer egingo zenuke?
 - Erdi bat zuretzat eta bestea niretzat.
- Orduan sikologoari infarto bat eman zion.

Adam El Atifi



Jaimitok bere amari:

- Ama, idazten dakit!
- Eta zer ipini duzu?
- Ez dakit. Irakurtzen ikasten dudanean esango dizut.

Brais Rodriguez



Mutil batek esaten dio neska bati :

- Ze nahiago duzu, Sueziara bidai bat egin, edo beroki bat erosi?
- Bidai bat Sueziara
- Zergatik?
- Hango berokiak hobeagoak direlako.

Marlene Ferreira.

RIIING!!!

- 7415757 zenbakia da?
- Ez, 7575147 zenbakia da.
- Barkatu ezkertia naiz eta.

Alex Tola

- Ama, ama, astoa potzura erori da
- Orduan bota janaria, ura nahikoa dauka eta.

Andree Monteiro

ZEINTZUK DIRA ZURE ALDE ONAK? ZERTAN HOBETU BEHAR DUZU?



NAIA



Jendearekin
ona naiz.



Gehiegi
hasarratzen
naiz



POOL



Soy inge-
nioso y muy
guapo



Me distrai-
go con fa-
cilidad

ARITZ

Ardurak har-
tzen ditut: ohea
egien dut, txoria
zaintzen
dut....



Bihurrikeri as-
ko egiten ditut.



ANDONI



Soy una
persona
muy alegre



A veces
soy un po-
co pesado



XABIER



Soy
Cariñoso.



Nunca
recojo
las cosas.



JUNE



Lagun asko
dauzkat.



Piska bat
mariman-
dona naiz.